

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko apirilaren 20a. VIII. urtea. 2.213. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Galiziako Allariz herriaren lore bideari jarraituko dio Tolosak udaberrian

Lorategi iragankorrekin apainduko du herria udalak ondorengo hilabeteetan; Alondegiko plazan jarri dute lehenengoa, 'Usain gozoak eta zaporeak' izenarekin

Allarizekin abenduan sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenetik etorri da ideia; bertako eredu jarraituz lorategien jaialdia antolatuko dute Tolosan **02**

Erregional Preferente mailan jarraituko du Intxurrek

Bi jardunaldiren faltan mailari eustea lortu dute alegiarrek; infantilek Kopa Txapelketan aurrera egiteko aukerak dituzte **06**

Benito Lertxundi eta Maddi Oihenart Tolosan izango dira

Udaberriko kultur ekimenen barruan musika eta txotxongilo emanaldiak nagusituko dira; Leidor eta Topic-en ekainaren 18ra bitarteko egitaraua antolatu dute **04**



➔ Barraskiloek Aste Santuan ez dute jairik izango.

Tolosan Karakol lasterketa antolatu dute hilaren 24ean, igandean, Trianguloa plazan. 11:00etan hasiko den txapelketa hiru fasetan jokatu da; karakolak udalak jarriko baditu ere, norberak berea etxetik eramateko aukera izango du. **03**

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:

•NA:

•Lanbidea:

•Jaioteguna:

•Helbidea:

•Herria:

•P.K.:

•Tel.:

•Posta elektronikoa:

•Kontu zenbakia:

Lorategi iragankorrek beteko dute herria datozen asteetan

Allarizekin abenduan sinatutako lankidetzak hitzarmenetik sortu da lorategi iragankorren ideia

Itzea Urkizu

Alondegiko plazan, lorategi berri bat jarri berri dute. *Usain gozoak eta zapoak* deiturapean, Gali-ziako Allariz herriko udalak Tolosako Udalarai egin dion oparia da lorategia.

Lorategia iragankorra da, eta landare aromatikoak dira nagusi; gastronomian erabili ohi dira besteak beste, eta baita lurrin moduan ere. Landare hauek, jangarriak diren lorontzietan hazten dira.

Hitzarmena abenduan

Alondegiko plazako lorategia Allariz herritik etorri da, 2010eko abenduaren 5ean, Tolosako eta Allarizko udalek sinatu zuten

akordioa dela eta. Lankidetzak hitzarmen honen helburu nagusia, lehen sektorearen eta landa eremuen garapena da. Allarizko Udalak landa auzoen inguruan eskarmentu handia du, eta Tolosan, berriz, azoka bereziek eta gastronomiak duten garrantzia ikusita, bi udalek aholkularitza eskaintzen die elkarri, arlo honetan.

Allarizen bertan, iaz antolatutako zuten estrainez lorategi iragankorren jaialdia, eta parke handi batean, zortzi lorategi iragankor jarri zituzten. Zortzi horietako bat da, hain justu, Alondegi plazan jarri dutena.

Lorategien jaialdia Tolosan

Allarizen bezalaxe, Tolosan ere lorategiei eskaintako jaialdia ospatuko dute datorren hilabetean. Modu honetara, Alondegian jarri berri duten lorategiaz gain, antzeko beste sei lorategi ikusgai izango dira Zumardiaundian. Aipaturiko lorategi hauek prestatzeko lanak direla eta, Zumariaundiko



Alondegi plazako lorategi iragankorrean landare aromatikoak jarri dituzte. HITZA

parkea itxi egingo dute apirilaren 26tik maiatzaren 14ra bitarte. Hain zuzen ere, maiatzaren 14an hasiko da lorategi iragankorren jaialdia. Edozein herritarrek joan ahal izango du lorategira, eta nahi duenak eskuragarri izango ditu bisita gidatuak ere.

Azkenik, aipatzekoa da, datorren ekainean ere, Santa Maria plaza, Plaza Zaharra, Trianguloa plazako arkupea, Euskal Herria plaza eta Berdura plaza, lorategi iragankorrek apainduko dituzte, bi, astez.



Tolosako alkatea eta Allarizkoa, hitzarmena sinatzen. HITZA

Naturari bizia eskaini diotenak omenduko dituzte

Aurtengo Naturaldian, abentura eta esploratzea izango dira egitarauaren barneko ardatz nagusiak

I. Urkizu

Hilabete honen amaieran hasi eta maiatza osoan zehar, erakusketez gain, hainbat hitzaldi nahiz ekintza izango dira herrian.

Galnera, Naturaldia-ren osagarri moduan, Erreterian eta Zarautzen ere hitzaldi bana izango da. «Natura guretzat ageriko, hurbil, interesgarri, ulergarri, edo ezinbesteko bihurtzeari bizia eskaini dioten eta eskaintzen dioten guztiak» omendu nahi izan dituzte aurtun, antolatzaileek.

↓ Naturaldia 2011

JARDUERAK

- **Apirilak 29- Maiatzak 8.** Kultur etxeko fatxadan GKO Galeriarik eta BOX.A Arte Elkarteak jardunaldietarako egin duten kartela zintzilikatuko dute.
- **Maiatzak 2- Maiatzak 31.** Tolosa & CO-ko dendariak euren erakuslehoetan GKO Galeriarik eta BOX.A Arte elkarteok naturaren inguruko argazkiak jarriko dituzte. Argazkilaria: Jose Antonio Abaigar, Miguel Cortes eta Josexto Gabarain.
- **Maiatzak 8, 12:00.** *Oria ibaiko baranda.* Zerkausian izango da, eta Gipuzkoako dantza eskole-tako dantzariak parte hartuko dute. Barrako zenbait ariketa

egingo dituzte. Aurkezlea: Kike Amonariz.

ARANBURU JAUREGIA

- **Apirilak 29- Maiatzak 31.** *Giza izaera eta izadia* deituriko Jose Benito Ruizen argazki erakusketa.

HITZALDIAK

- **Maiatzak 2, 19:30.** Topic-en, *Tolosa: naturaren istorio txoak.* Hizlariak: Asier Hilario (geolo-

goa eta Zumaiaiko flyscheko zientzia koordinatzailea) eta Josu Iztueta bidaiaria. Aurkezlea: Jokin Bildarrataz.

- **Maiatzak 3, 19:30.** Topic-en, *Argazkia, artea eta kontserbazioa.* Hizlaria: Jose Benito Ruiz argazkilaria. Aurkezlea: Kiko Alvarez biologoa eta argazkilaria.
- **Maiatzak 4, 19:30.** Topic-en, *Atzealdearen lilura. Nómadas del viento*-ren making off-a proiektatuko dute. Hizlariak: Jose Maria eta Miguel Morales, eta Joaquín Araujo. Aurkezlea:

Alberto Gorritiberea zine zuzendaria.

- **Maiatzak 5, 19:30.** Topic-en, *Félixen aztarna. El hombre y la tierra* proiektatuko dute. Hizlariak: Odile Rodríguez de la Fuente eta Jordi Sargatal. Aurkezlea: Imanol Biain.
- **Maiatzak 6, 19:30.** Topic-en, *Inkak, momiak eta mendiak: goietako arkeologia eta zientzia dibulgazioa.* Hizlaria: Constanza Ceruti arkeologoa. Aurkezlea: Lourdes Errasti, Aranzadiko antropologiako kidea.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Igeltseritza orokorra.** Esperimentzia handiko igeltsero profesionalak dira: teiltatu berriak, teiltatu zaharrak konpondu, barruko obrak egin, pintura lanak, ... eskaintza bereziak egingo dituzte. 656 41 02 80.

ALOKAIRUA

■ **Irura.** Etxebizitza alokatzeko moduan Iruran. Bi logela, 80 metro karratu eta garaje itxia aukeran. Interesatuak, deitu 636 53 00 00 telefonora.

■ **Leitza.** Bikote bat pisu edo baserri baten bila dabil, alokai-

ruan hartzeko. Interesatuak, deitu 661 82 93 53 telefonora.

EROSI

■ **Bizikleta.** Paseorako bizikleta merke eta erosoa erosiko nuke. Interesatuak, deitu 655 71 18 73 telefonora.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jauntzetak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20100 TOLOSA



Barraskiloak gogor ari dira entrenatzen iganderako, bareak eta sugeak lagun dituztela. A. IMAZ

Barraskiloak Tolosako lasterketarako prestatzen ari dira

Trianguloa plazan lehia bitxia antolatu du udalak hilaren 24ean, igandean; lasterketa 11:00etan hasiko da

Egun eta leku berean karakolada erraldoia egingo dute, 10.000 barraskilorekin

Asier Imaz Tolosa

Lehen aldiz egingo da Tolosan gisa honetako karakol lasterketa bat, beraz, udalak herritar guztiak gonbidatu ditu bertan parte

hartzera, «goiz atsegin eta dibertigarria igaroko baitugu. Anima-tu eta parte hartu zuen lagunekin batera!».

Karakol lasterketa igande honetan egingo dute, hilaren 24ean,

Tolosako Trianguloa plazan. 11:00etan hasiko da hiru fase edukiko dituen lehia bitxia. Karakolak norberak eman ditzake, baina udalak ere jarriko ditu eskuragarri, parte hartu nahi duenarentzat.

10.000 barraskilo

Bihartik hilaren 25era *Karakol Saltsa* izenburupean, egitarau oparoa antolatu du Tolosako Udalak hainbat eragilerekin elkarlanean. Ekitaldietako izarra karakola izango da. Lasterketaz gain, gastronomiarekin loturiko eki-

menak egingo dira, eta garai bateko tradizioari utsiz, karakolak jateko aukera izango da. Hilaren 24ean, batzuk Karakol lasterketaz gozatzen ari diren bitartean, besteak karakolada erraldoia prestatzen ari dira. Horretarako, 10.000 barraskilo erabiliko dituzte. Azkenik, herritarren artean banatuko dituzte.

Menu eta pintxo bereziak

Tolosaldeko hainbat tabernak eta jatetxek, *Karakol Saltsa* ekimenarekin bat eginez, pintxo eta menu bereziak eskainiko dituzte

↓ Karakol lasterketa

OINARRIAK

- **Partaideak.** Nahi duten herritar guztiak hartu dezakete parte.
- **Barraskiloak.** Bakoitzak bere eraman dezake. Bestela, Trianguloan bertan izango dira, udalak jarrita.
- **Zenbakiak.** Partaide bakoitzak bere barraskiloa identifikatu behar du. Hau Trianguloan bertan egin ahalgo da, Tolosako Udalak emandako zenbakitxoekin.
- **Nondik norakoak.** Proba hiru fasetan banatuko da: sailkapenak, finalurrekoak eta finala. Lasterketak hiru mahaian jokatuko dira, eta hamar barraskilo ariko dira bakoitzean. Horietatik erdiak pasako dira finalurrekora. Finalurrekotik sei parte-hartzailek jokatuko dute finala.
- **Sariak.** Irabazleentzat amaieran sariak banatuko dira.

Aste Santuko bost egunetan. Parte hartzen duten zazpi jatetxean kasuan, bere baitan karakol platera duen menu bera eskainiko dute.

Tabernetan, berriz, pintxoak eta ardoa eskainiko da 2,50 euroren truke. Jatetxeetan ez bezala,

Tolosaldeko zazpi jatetxek karakol menu berezia eskainiko dute Aste Santuan

hauetan bakoitzak pintxo zehatz bat prestatu eta eskainiko du, eta honi laguntzeko ardo ere espre-ski aukeratu izango da. Hauek dira zazpi jatetxeak: Astelena, Beti Alai, Botarri, Fronton, Herrialde, Iriarte eta Iturri Goxo.

Tolosako igerilariak euskal selekzioarekin aritu dira

Igarondo Urpekoak taldeko Mara Varelak bi urrezko domina irabazi ditu Espainiako txapelketan

Mongek zilarrezko domina bat eta brontzezkoa lortu zituen. Nafarroako selekzioarekin Amaia Arregi aritu zen eta zilarrezko domina lortu zuen 400 eta 800 eskafandran. Txapelketa honetan pro-

ba bakoitzean lortu behar diren puntuak oso garrantzitsuak dira eta lan ikaragarria egin zuten beste taldekide guztiak: Irati Lakunza, Inge Zubeldia, Nere Karrera, Leire Remirez eta Mikel Es-

tebanek abiadurako probetan, eta Ainhua Tolosak eta Gregorio Mancisidorrek eskafandra proba gogorretan. Talde lana gustatzen zaio Jon Espina entrenatzaileari,

eta bide beretik jarraituko dute urteko beste probetan ere; Tolosan ospatzen den Roberto Jauregiren oroimenezkoan, maiatzaren bukaeran, besteak beste.

Erredakzioa Tolosa

Asteburu honetan Iruñean ospatutako hegats igeriketako Espainiako txapelketan parte hartu du Euskadiko selekzioak, eta 5. postua lortu du sailkapen orokorrean. Selekzio honetan Tolosako Igarondo Urpekoak taldeko 10 igerilari zeuden.

Mara Varelak ez zuen hutsik egin eta landutako bi urrezko domina irabazi zituen, 50 apnea eta 100 eskafandrako probetan; Patxi



Eskualdeko igerilariak gustura lortutako emaitzekin. HITZA



Musika eta txotxongiloak izango dira nagusi udaberrian

Datorren ekainera bitarte, Leidor aretoa eta Topic izango dira herriko kultur ekitaldien ardatz

Itzea Urkizu

Udaberriko kultur egitarauak Leidor aretoa eta Topic izango ditu ardatz nagusi.

Haurrek eta musika zaleek gozatuko dute, besteak beste, udaberriko prestatu duten kultur egitarauaz. Horretaz gain, dantza eta antzerki ikuskizunak ere izango dira. Ekainaren 18ra bitarte, beraz, Tolosako oholtzetan aniztasuna izango da nagusi.

Txotxongiloak Topic-en

Haur eta gaztetxoenei begirako emanaldietan, txotxongiloak partaite diren ikuskizunak izango dira nagusi. *El viaje de Martín* ikuskizunean, esaterako, txotxongiloez gain, marrazki bizidunak ere istorioaren zati izango dira; haurrek, gainera, interaktiboki parte hartu ahal izango dute emanaldian. *Pinocho* ikuskizunean, berriz, elezahar honekin gozatu ahal izango dute, abesti eta dantzez lagunduta. *Barneko iluna* antzerki emanaldiak ere, txotxongilo eta panpinen bidez azalduko du katixaren istorioa. Azkenik, eskuzko betiko txotxongiloak eta hauen bilakera ikusteko aukera izango da *Manoviva* ikuskizunean; bost hatzekin eta esku ahurrarekin, pertsonaia magikoak sortuko dituzte.

Euskal musikariak gurean

Maiatzaren 6an, Benito Lertxundi abeslari oriotarrak kontzertua eskainiko du Leidor aretoan. 2008. urtean kaleratu zuen *Itsas*



ulu zolia deituriko bere azken lana, eta orduz geroztik hirugarrenez bisitatuko du Leidor aretoko oholtza.

Maiatzaren 27an, berriz, Maddi Oihenart abeslari zuberotarra izango da gurean. Hain zuzen ere Zuberoako artzainen kantuei eutsi die emakume honek, eta bere ukitu pertsonalarekin abesti haiek bizirik mantentzeko pauso bat eman duela esan daiteke. Bere ahotsa du instrumentu nagusi, eta *Hari biru* deituriko lehen lanaren ondoren, *Baldi* proiektu berria aurkeztuko du Topic-en. Proiektu honetan, Juantxo Zeberio piano jole tolosarra izan du lagun.

Musikaria, berriro ere

Beste urte betez, Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolako Musikaria jardunaldiak antolatu ditu. Musika Bandaren kontzertuaz gain, haizezko talde bat, Da-



Jokin Ansorena kultura teknikaria eta Andoni Iturzaeta kultura zinegotzia, aurkezpeneari. A. IMAZ

Daiko perkusio taldea, klarinete laukote bat eta harizko musika tresnen bidez bertsoiak eskaintzen dituen Hariots talde irundarra izango dira entzungai.



Benito Lertxundi eta Maddi Oihenart izango dira Tolosan. A. IMAZ/HITZA

Udaberriko kultur egitaraua

MAIATZAK 6

■ **Benito Lertxundi.** Leidor aretoan, 22:30ean.

MAIATZAK 13

■ **Zoo, Ertza dantza taldea.** Leidor aretoan, 20:30ean.

MAIATZAK 14

■ **El viaje de Martín, Titiriguri.** Haurrentzako txotxongilo emanaldia Topic-en, 18:30ean.

MAIATZAK 20

■ **Elogio de la cazadora, Mefisto Teatro.** Maitasuna eta sexuaren inguruko komedia, Leidor aretoan, 20:30ean.

MAIATZAK 27

■ **Baldi, Maddi Oihenart.** Proiektu berria aurkeztuko du Topic-en, 20:30ean.

MAIATZAK 28

■ **Pinocho, Teatro de las estaciones.** Txotxongiloak abestiak eta dantzak. Topic-en, 18:30ean.

EKAINAK 3

■ **Espiral, Samadhana.** Ekialdeko dantza tradizionala eta kreatibo nahastu dituen ikuskizun bizi sortu dute kolore desberdinen artean. Leidor aretoan, 20:00etan.

EKAINAK 11

■ **Coppelia, kultur etxeko dantza tailerra.** Haurrei zuzenduriko emanaldia, Leidor aretoan, 18:00etan.

■ **Barneko iluna, Azika taldea.** Euskarazko txotxongilo emanaldia, 19:00etan, Topic-en.

EKAINAK 17

■ **Il circo poético, Girovago e Rondela.** Zirkoaren parodia bat. Euskal Herria plazan, 19:00etan.

■ **Criaturas, kultur etxeko antzerki tailerra.** Hamabi eszenetan, sarri helduen eta aurren artean egoten den distantzia islatuko dute. 20:30ean, Leidor aretoan.

EKAINAK 18

■ **Manoviva, Girovago e Rondela.** 18:30ean eta 20:00etan, Topic-en.

MUSIKARIA

■ **Musika lurrinak espiritua elikatzeko.** Klarinete laukotea. Maiatzaren 23an.

■ **Da-Daiko hirukotea.** Perkusio taldea. Maiatzaren 24an.

■ **Hariots.** Maiatzaren 25ean.

■ **3B Dixieland.** Maiatzaren 26an.

■ **Tolosako Musika Banda eta Kup taldea.** Maiatzaren 28an.

■ **Udaberri Dantza Taldeko ikasleak eta Tolosako ikasleen banda.** Maiatzaren 29an.

'Boligrafo bat Maliren alde' ekimena martxan da Ikastolan

Jesusen Bihotza Ikastolak antolatu duen kanpainarekin, edukiontzi bete material bildu nahi dute

E. Maiz Villabona

Ikastolak ahalegin berezia egiten du behar handia duten herrialde-ekiko sortzen diren laguntza ekimenetan. Hori dela eta, ikastolak kanpaina xume baina esanguratsua ipini nahi du abian: *Boligrafo bat Maliren alde*; izan ere, hemen horren ohiko ditugun baliabideak (boligrafo bat esterako) han balio handiko tresna bilakatzeko dira.

Etengabeko kontzientziazio prozesu bat landu nahi da, Hezkuntza Komunitateko kide guztiak bustiko dituen; ikasle, irakasle nahiz gurasoak. Bestetik, ahal den neurrian, norberak jar dezakeen laguntza bideratzen da: janari poltsak bilduz, higiene pertsonalerako artikulatuak, eskola materiala, kirol materiala, arropa...

Azken urteetan, ikasleek eza-gunak dituzte Saharako errefuxiatuen alde egin diren kanpainak. Eta modu berean, duela hiru urte, Malirekin Elkartasuna proiektuaren aurkezpena izan zuten. Malira edukiontzi handi bat bidaltzea zen helburu, eta hori lortu bidean, beraien laguntza apurra eskaini zieten.

Era guztietako materiala

Bi hilabeteren bueltan, beste edukiontzi handi bat bidali nahi dute, material ugari eta ilusio gehiagoz beteta. Ikasle, guraso eta irakasle-iei luzatzen diete deia, boligrafo bat (edo nahi adina) erosteko. Eraikin bakoitzean ipiniko dituzten kutxetan utzi beharko dira. Hilabete amaieran boligrafo kopurua zenbatu, eta ikastolak berak, zenbatu adina boligrafo gehituko ditu. Eta guztien artean Maliko eskoletako beharrak arindu nahi dituzte.

Baino ez dituzte boligrafoak bakarrik jaso nahi. Edukiontzian ahalik eta gauza gehien eraman nahi dute: boligrafoak, koadernoak, margoak, fotokopiagailuak, ordenagailuak, baloiak, kirol jantziak, transformadoreak, bateriak, eguzki plakak, aizkorak, motorrak, motor elektriko txikiak, ur-ponpa elektrikoak, generadoreak, megafonia materiala, musika tresnak, txirringak, sendagaiak, emakumearen higienak, konpresak, bularretakoak, kuleroak, xaboa, arropa...

Irudia Ibarra



TXELO ROMEO DA EAJ-REN HAUTAGAIA

Atzo, EAJ-k maiatzaren 22ko hauteskundeetarako Ibarra alkategaia aurkeztu zuen. Joseba Egibar izan zen udaletxeko pleno aretoan egin zen ekitaldiaren aurkezlea. Txelo Romeo izango da

zerrendaburua. Itziar Jauregi, Beatriz Olano, Koldo Cid, Eleuterio Sanchez, M^a Victoria Celoa, Jose Ignacio Ayestaran eta Jose Maria Gil ere zerrendan egongo dira, besteak beste. MARTA SAN SEBASTIAN

Euskarazko irakurketa sustatzeko 'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa

Topaguneak Hego Euskal Herriko 12 herritan egingo du egitasmoa; gurean, Asteasun eta Villabonan

Eneritz Maiz Asteasu/Villabona

Topaguneak *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoaren bosgarren edizioa aurkeztu du. Irakurketa sustatu asmoz, Hego Euskal Herriko 12 herritan egingo dute; tokian tokiko euskara elkarteetan, udal liburategien eta liburudenden elkarlanari esker gauzatuko da. Gurean, Amasa-Villabonan eta Asteasun izango da aukera.

Topaguneko Manuel Morenok eta Manuel Larramendi Bazkuneko kide den Bakartxo Iguaronek aurkeztu dute. Kanpainaren izenak berak argi adierazten duen bezala, hiru pauso eman behar dira bertan parte hartzeko. Lehenengo pausua irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, hain zuzen ere: herriko liburutegi publikoak, eta euskarazko edozein liburu mailegutan hartzea, eta ondoren irakurtzea.

Liburua irakurritakoan, libururutegira bueltatu, eta fitxa erraz bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman dion irakurleari... Fitxa

hori beteta, liburuazainak erosketara txeketa emango du, hitzartutako liburu-dendan erabiltzeko.

Azken pausoa, aurreko urteetan bezala, liburu oparitzea da. Liburutegian jasotako txartelarekin, prezioaren %25 ordaindu ahal izango da liburu dendan euskarazko edozein liburu erostean, edo %50 euskara elkarteren bateko kidea izanez gero.

Egitasmoaren helburu nagusia irakurzaletasuna bultzatzea da, eta horretarako, euskaraz irakurtzearen alde atsegina azzimarratu nahi dute. Topaguneak, euskararen erabilera gozagarria sustatu nahi du irakurtzeak eta oparitzeak dakarten gozamenaren bidez.

Halaber, bide batez, oso garrantzitsuak diren bestelako helburuak ere lortu nahi ditu Topaguneak ekimen honen bidez, hala nola euskara elkarteetako bazkide diren euskaltzaleak liburutegi publikoan erabiltzaile aktibo bihurtzea, era askotako eragile publiko eta pribatuen elkarlana sustatzea eta eragile horien guztien arteko harreman sarea euskaraz hedatzea, eta ekarpena egitea euskarazko liburugintzari, liburuaren ekoizpena eta salmenta bultzatuz.

Egitasmoa, Eusko Jaurlaritzaren eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aldundien babesaz gain,

Alberdania, Erein, Elkar, Ibaizabal, Pamiela eta Susa argitaletxeek ematen duten laguntzari esker izaten da posible.

Apirilaren 23tik aurrera

Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa hilaren 23an hasiko da. Liburuaren Nazioarteko Egunean. Amaiera, berriz, uztailearen 23an izango du, uda izaten baita jendeak irakurtzeko denbora gehien duen tarte, eta ondorioz uda aurreko hilak oso egokiak iruditu zaizkie antolatzaileei liburu trukea sustatzeko.

Aipatu bezala, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako 12 herritan egongo da martxan kanpaina hau datozen hiru hilabeteetan, tokian tokiko Euskara Elkarteek sustatuta. Gipuzkoaren kasuan, eta gure eskualdean Asteasu eta Amasa-Villabona izango dira.

Iaz 16 herritan gauzatu zen egitasmoa, eta gehienetan eragin positiboa izan zuen liburutegietako euskarazko liburu mailegutan, batez ere, 18 urtetik gorako irakurleen artean. Liburu salmentetan ere, eragin positiboa izan zuen, 600 liburu baino gehiago saldu zirela adierazi dute antolatzaileek, parte hartu zuten 23 liburu dendatan, erosleek horretarako egitasmoak eskaintzen dien erosketara txeketa erabilita.

→ Laburrak

Herriko jaiak antolatzeko bilera gaur Atxulondon

ZIZURKIL › Zizurkilgo Festa Batzordea herriko jaiak antolatzeko hastera doa. Garaia iritsi da, eta herritar guztiak, asteazkenean, Atxulondo kultur etxean 19:00etan burutuko diren bileretan parte hartzeko gonbita luzatzen diete. Jai parte hartzaile, eta denon gustukoak antolatzeko aukera izan dadin, eta guztion elkarlana ezinbestekoa delako, animatzeko deia egiten dute.

Maiatzaren 7an Ruper Ordorikaren kontzertua

VILLABONA › Maiatzaren 7an, larunbatean, Olaederra kirolegian Ruper Ordorika ofatiarraren kontzertua izango da. Billa-bonara Herri Ekimenak (presoen senide eta lagunek) antolatu du kontzertu hau. 22:30ean hasiko da, eta sarre-rak dagoeneko erosteko aukera dago. Iratzer elkarte, Iru Aldeta eta Rebote tabernan daude salgai. Egunean bertan ere egongo dira. Sarrera, 10 euro ordaindu beharko da.



Ordorika Villabonan izango da. HITZA

Haurreskoletan izena emateko garaia da

HEZKUNTZA › Eskualdeko Haurreskoletan izena eman nahi duten 0-2 urteko haurren gurasoek astelehenean aurrera izango dute aukera matrikula egiteko. Jada jaiota dauden haurrak, maiatzaren 2tik maiatzaren 13arte egin beharko dute. Aldiz, 2011ko maiatzaren 14etik ekainaren 13ra jaiotako haurren eskaerak, ekainaren 14 arte aurkeztu ahal izango dira. Eta 2011ko ekainaren 1tik 30era jaiotakoak, eta urrian hasi nahi-ko luketenen, uztailearen 1era arte izango dute eskaera aurkeztu epea.

Mailari eutsi diote Intxurre taldekoek bigarren itzuli ona egin eta gero

Patxi Renobales
Intxurreko
koordinatzaileak azaldu
duenez, «oso gustura»
daude lorpenarekin

Imanol Garcia Alegia

Intxurre futbol elkarteko Erregional Preferentekoek mailari eutsiko diote. Bi partida falta dira liga amaitzeko, eta asteburuko neurketa irabazi eta gero, matematikoki lortu dute mailan mantentzea. Bigarren itzuli oso ona egin dute, batez ere etxean lortutako garaipenei esker, eta horrek atera die jaitziera postutik.

Patxi Renobales Intxurre futbol elkarteko koordinatzailea «oso gustura» agertu da, denboraldi hasieran jarritako helburua lortu baitute. «Helburua maila mantentzea zen», dio Renobalesek. «Bigarren itzulian 13 partida galdu gabe egin dituzte, eta tartean sailkapeneko aurrenekoie irabazi diete». Hain justu, azken jardunaldian 1-0 irabazi die Elgoibarko taldeari, sailkapenean bigarren dagoen taldeari.

Lehen itzulia ez zen batere ona izan. Maila berrira ohitu beharra zegoen. Baina erreakzioa iritsi zen, eta bigarren itzuliko emaitzak kontuan hartuta, sailkapenean bigarren edo hirugarren izango ziren alegiarrak. «Jokalariak lortutakoarekin oso gustura daude», azaldu du Renobalesek. «Kontuan izan behar da maila honetan parte hartzen duen herrien



Erregional Preferente mailako taldeko kideak gustura daude mailari eutsi diotelako. HITZA



Infantil mailakoak Kopa Txapelketan aurrera egiteko aukerak dituzte. HITZA

artean Alegia dela txikiena». Beste bi neurketa falta dira, maiatzaren 7an eta 14ean, eta partida horietarako ziurrenik jubenil mailako zenbait jokalaririk igoko dituzte eta aukera gutxiago izan duten taldekiideek ere jokatuko dute. «Bi partida horiek irabaztera joango gara, ea sailkapenean aurre-

rago gelditzea dugun», esan du Intxurreko koordinatzaileak.

Sailkapenean 12. postuan daude alegiarrak, 35 punturekin. Hiru talde dira jaisten direnak, eta azken hirugarrenak, Urnietak, 27 puntu ditu. Intxurrek bere aurreko hiru taldeak hiru eta puntu batara ditu: Getariako

Keta eta Lagun Onak (38 puntu) eta Amaika bat (36 puntu).

Gazteen hiru taldeak

Lehen mailako jubenil taldea Kopa Txapelketa jokatzen ari da. Azken jardunaldia falta zaie eta zortzi taldeetatik bosgarren doaz. «Nahiko txukun aritu dira», azal-

du du Renobalesek. «Lehen talde-zenbait jokalaririk igotzea behar izan dituzte eta horrek gauzak zaildu dizkie. Kadete mailakoek igotzea behar izan dute jubenil taldeko hutsuneak betetzeko».

Kadeteak ere Kopa jokatzen ari dira. Zazpi taldeko multzoan bigarren doaz, baina jardunaldi bakarra falta da eta ezin dute lortu multzoko lehen postua.

Partaidetza mailako infantil mutilak Kopa jokatzen ari dira. Aurrenak daude jardunaldi baten faltan, eta final laurdenetarako sailkatzeko aukerak dituzte. «Kopako finalera iristeko taldea dute», dio Renobalesek.

Nesken bi taldeak

Intxurre elkarteak nesken bi talde ditu: futbol zortzian jokatzen dute infantil mailakoek eta areto futboleko aritzen diren kadeteak. Infantil mailakoak Gipuzkoako Txapelketa jokatzen ari dira, liga lehen postuan amaitu eta gero. Partida baten faltan, hirugarren daude, multzoan talde indartsuak egokitu baitzaizkie. Alegiarrak beraz, ez dira, beraz, azken faserako sailkatuko.

Kadete mailako nesken taldea aurreko osatu da lehenengo aldiz. «Infantilekoak mailaz igotzen zirenean, ez geneukan talderik, eta kirola egiteari uzten zioten», dio Renobalesek. «Horregatik pentasatu genuen areto futboleko taldea osatzea kadete mailan, aukera emateko adin horretako neskei futboleko jarraitzeko».

Ez dituzte emaitza onak lortu, baina «oso gustura aritu dira», eta datorren denboraldian taldea mantentzeko asmoa dute Intxurre elkarteak. «Infantil mailatik igotzen direnekin indartuko da taldea», azaldu du elkarteko koordinatzaileak.

Saihesbidearen bazterrean autoa ez uzteko eskatu du udalak

Beste ibilgailuentzat eta oinezkoentzat arriskutsua izan daitekeela dio, zabaldu duen ohar batean

I. Garcia Amezketako

Amezketako Udalak saihesbide bazterrean ez aparkatzeko eskakera egin du ohar baten bitartez. Beste ibilgailuentzat edo oinezkoentzat arriskutsua izan daitekeela dio idatzian. Autoa aparkatzeko hainbat aukera daudela zehaztu du: plazan, iturriaren ondoan, aparkatzeko egokitutako guneetan; Abaltzisketarako bialean,

harategi ondotik Zubeldianera birtarte dagoen bidearen bi aldeetan; eskola zaharrak zireneko atzeko aparkalekuan; eta Bearzantetik Zubeldianera bitartean dagoen aparkaleku handian.

Bestalde, Bartolome Deunaren kaleko zati batean urbanizazio lanak egin eta amaitu ondoren, autobusa gorantzako norabidean bere zerbitzua egiten hasiko da berriro. Udalak azaldu duenez, horren ondorioa izango da errepide erabat libre egon beharko duela eta ezingo dela bertan autorik aparkatu. Aparkalekuen gaia erregulatuko bitartekorik ez duenez, Ertzaintzari trafikoko araudia errespetatu araztea aginduko zaiola dio udalak.

Herriko II. Frontenis Txapelketa maiatzaren 7an hasiko da

Udalak antolatzen du lehiaketa; izena udaletxean eman behar da eta azken eguna hilaren 29a da

I. Garcia Amezketako

Amezketako Udalak II. Frontenis Txapelketa antolatu du. Maiatzaren 7an hasiko da lehiaketa, eta bi maila bereiztu dituzte: neskek eta mutilak. Izena udaletxean bertan eman behar da, eta horretarako azken eguna hilaren 29a, ostirala, izango da.

Bikoteka jokatuko da txapelketan. Lehiaketaren arauak zehazten

duenez, betebeharreko baldintza jokalarietako batek amezketarra izan behar duela da.

Izena ematen duten bikote kopuruaren arabera antolatuko da zenbat neurketa jokatuko behako diren. Txapelketaren arauak diotenez, zortzi bikotek baino gutxiagok izena emanez gero, parte-hartzaileen artean ligaxka antolatuko da.

Txapelketaren partidak larunbat goizez eta arratsaldean jokatuko dira. Orduak partaide kopuruaren arabera antolatuko dira. Neurketak 30 tantotara jokatuko dira. Epaileren gaiari dagokionez, partida irabazten dutenak ariko dira hurrengo neurketan epaile lanetan.

9. ola industria sektorea, gaurko osoko bilkuran jorratuko den gaietako bat

I. Garcia Amezketako

Amezketako Udaltzatzen bilkura egingo du gaur, 20:30ean, udal txeko pleno aretoan. 9. ola industria sektorearen urbanizatzeko jarduketako programaren behin betiko onarpena izango da bilkuran jorratuko den gaietako bat. Programari horri jarritako helegitea ere eztabaidatuko da.

Beste gai nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eskuratzeko Zentralizatuko Sistemari-Foru Kontratazioen Zentralari atxikitze erabakia eta, zehazki, elektrizitatearen espedienteari atxikitze erabakia izango da.

Gutunak

Prozesu demokratikoaren alde, errepresiorik ez

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak, ostegun gauean Guardia Zibilak Txaraman eta Gaztelun egindako miaketak salatu nahi ditu. Bortizkeria, indarkeria eta errepresioa erabiliz Txaramako etxebizitzan sartu ziren, bertan bere senideekin 100 urteko pertsona bat bizi da, eta nahi zuten guztia egin zuten etxeko bizilagunei inongo argibiderik eman gabe.

Ez dago eskubiderik nahi duten guztia egiteko beraien arma eta nagusikeria erabiliz.

Estatu espainolaren ezintasunaren adierazle bat da guzti hau. Euskal Herrian eraikitzen ari den fase politiko berriaren aurkako sabotajea delarik. PSOE gerra estrategia batean lerroturik dago eta Euskal Herrian bakerako eta gatazka politikoaren konponbide demokratikorako irekitzen ari den aukera zapuztu nahian dabil.

Bestetik Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak Leaburu-Txaramako Udaleko ordezkariaren jokoera salatu nahi du: Txaramako familia honek, Guardia Zibilak egindako miaketa eta

erabilitako bortizkeriaren ondoren, ez duela Leaburu-Txaramako alkatearen ezta zinegotzien deirik ezta bisitarik jaso ere egin, ondorioz ez direla beraien egoeraz arduratu ere egin. Hau al da herriko agintari batzuen jokoera zintzoa?

Gertatutakoa salatze eta familiari Leaburu-Txaramako herriaren babesa emateko, ezker abertzaleak Leaburu-Txaramako udaleko ordezkariari, lehen bait lehen batzar berezi bat egitea eskatzen dio.

Honela izango delakoan.

■ **Leaburu-Txaramako ezker abertzalea.**

Gazteluko ezker abertzalearen babesa

Gazteluko ezker abertzaleak, lehengo gauean Guardia Zibilak egindako miaketak salatu nahi ditu.

Bortizkeria, indarkeria eta errepresioa erabiliz etxera sartu eta nahi duten guztia eramana. Familiartekoei inongo argibiderik eman gabe etxea pre-zintatu, kotxea konfiskatu, eta abar egin zituzten.

Hau salatzeaz gain, familia-koei babesa eman nahi diegu.

■ **Gazteluko ezker abertzalea.**



Alurr Dantza Taldeak, hilaren 9an, Zaldibian eskainitako emanaldiaren une bat. HITZA

Alurr Dantza Taldeak plazako dantzen ikastaroa antolatu du herritarrentzat

Maiatzaren 3ko ikastaroa dohanik izango da, eta herritar guztiak parte hartzea animatzen dituzte

M. Ugartemendia Ibarra

Alurr Dantza Taldeak plazako dantzen ikastaroa antolatu du maiatzaren 3rako. Ikastaroa dohanik izango da, eta herritar guztiak zuzendurik dago. Maiatzaren 3an, asteartean, 20:00etan, Alurren lokal zaharrean bilduko dira ikastaroan parte hartu nahi dutenak. Antolatzaileek jendea parte

hartzea animatu nahi dute. Bertan plazako dantza ikasteko aukera paregabea izango baita. Gainera, horrela, jaietan eta Alurr Dantza Taldeak antolatzen dituen ekitaldi eta jardueretan dantza hauek praktikan jarri ahal izango dituzte.

Zaldibiako emanaldia

Hilaren 9an, Alurreko 12-16 urte bitarteko 75 dantzarik ordubeteko emanaldia eskaini zuten Zaldibiako pilotalekuan eta kaleetan. Alurreko arduradunen arabera ikus-entzule «ugari» bildu zen emanaldian, eta «harrera beroa» egin zieten dantzariari. Mikel Laboaren *Baga, biga* kanturrekin

hasi zen emanaldia. Koreografia, berriz, Aiert Beobidek prestatu zuen. Lehenengo dantza ondoan, lau taldek dantzatu zuten. Emanaldiaren erdian eta amaieran, Zaldibiako dantzariak ere parte hartu zuten beraien dantzak eskainiz.

Galizian kultur trukea

Hilaren 26tik 31ra, Galiziako Chantada herrira joango dira Alurrekoak. 25 dantzarik Euskal Herriko dantza tradizionalen eta euskal kulturaren berri emango diete galiziarrei. Gazteen arteko kultur truke bat egitea da asmoa; honela, bi herrien arteko kultur harremanetan sakontzeko.



Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak egindako elkarretaratzea. HITZA

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

PELLO IPINTZA UGARTEMENDIA

Urak dakarrena
urak daroa
hik emandakoa
gurekin geratzen da

Zizurkilgo Udaleko lankideak

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak Lloretara oporrak antolatu ditu. 15 egun eta 14 gau igaroko dituzte bertan, ekainaren 1etik aurrera. Bazkideek 390 euro ordaindu beharko dituzte, bazkide ez direnek 396. Izena elkartearen eman behar da.
■ **Tolosaldea.** Anadir elkartearen bilera hilaren 27an, asteazkenean. Iturriza jubilatuta elkartearen lokaletan bilduko dira, lehen solairuan, 11:30ean.
Topic-en ondoan aurkitzen den elkartearen, lapurtutako haurren inguruko batzar informatiboa burutuko dute. Tolosako klinikan ustez gertatutako kasuak ere aztertuko dituzte, besteak beste.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** *Boga Berria* emakume arraunlariei buruzko argaz-

kiak Aranburu jauregian apirilaren 23a bitarte. Emakumeen Donostiako banderaz gain, eskualdekoen argazkiak aurki daitezke bertan. Orduategia: 17:30etik 20:30era jaiegunak eta astelehenak izan ezik.
■ **Tolosa.** Naroa Armendariz *Perla Pinturak* Aranburu jauregian maiatzaren 7a arte. Orduategia: 17:30etik 20:30era jaiegunak eta astelehenak izan ezik.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** I. Olarreaga, Korreo kalea 2, 943 67 01 28.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**

Irudia Anoeta



LIBURUAK, PREZIO SINBOLIKOAN

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, Liburuaren Merkatu Txikia antolatu du Anoetako Udalak, udaletxeko arkupean. Hiru egunez jarri dute eta gaurkoa izango da azken eguna. 17:30etik 19:30era egongo dira. Bertan, liburu ezberdinak

erosteko aukera izango da, eta liburuak prezioa sinbolikoa dute. 0,50 zentimotik hasi, eta 3 euro bitartean jarri dituzte salgai. Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu azokara. Egunero liburu ezberdinak egongo dira. HITZA/E.MAIZ



XIII. HITZA Aste Santuko argazki lehiaketa



Harpidedun bakoitzak argazki bakarra bidali dezake argazkiak@hitza.info helbidera
Argazkiak bidaltzeko azken eguna: maiatzak 13